

ARAUTEGIA

HONDARTZA BOLEIBOLA 2019

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Boleiboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2019ko maiatzaren 25ean Sestaoko Galindo Kirol Gunean (Bizkaia). Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Mailak:

Infantilak : 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Talde bakoitzak gutxienez 3 jokalaria eta gehienez ere 6 jokalaria izango ditu, entrenatzaileaz gain.

Jokatze formatoa: 3x3

Aktan dauden jokalaria guztiek set bat jokatu beharko dute derrigorrez partida bakoitzean.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Hiru setetik gehien irabazten dituen ekipoa izango da irabazle. Seta irabazten du 2 puntuko aldea atereaz 21 puntu lehen lortzen dituenak. Dena den, hirugarren seta bi puntuko aldea atereaz 15 puntu lehen lortzen dituenak irabaziko du, baina ez dago gehienezko puntu mugarik.

Aldaketak set bakoitzaren amaieran bakarrik egin daitezke eta bi hutsarte eskatu ahal izango dira.

BALOIA ETA SAREAREN ALTUERA

Baloia Mikasa VLS200 izango da.

Sarearen altuera hau izango da :

Nesken kasuan : 2,10 m.

Mutilen kasuan : 2,24 m.

4. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

5. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Boleiboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.